

Ikerketa-bideak konbergentzia mediatikora hurreratzeko

Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Koop. E.-ren adibidea

Jotxo Larrañaga Zubizarreta

EHUko irakaslea

Konbergentzia mediatikoa murgiltzea da ikerketa-lan honen helburua eta azterketa-bideak azaltzen ditu metodologia egokienaren bila. Komunikabide-enpresa guztiak dabilta prozesu betean konbergentzia deituriko medioen eta eduki-informazioaren batuketan. Artikulu honek Gipuzkoako lurraldean Debagoiena eskualdeko komunikabide-enpresa hartu du ikerketa-bide, *Goiena Komunikazio Zerbitzuak*, Koop. E., Arrasaten kokatua. 2006ko abendua eta 2007ko otsaila bitartean eginiko azterketaren emaitza da artikulua. Lanean hasi baino lehenago gure hipotesia hau zen: Euskal Herriko komunikazioko enpresen artean konbergentzia maila aurreratuena duela *Goiena* kooperatibak, *Vocento* taldea edo *Eitb* taldea ailegatu ez diren neurriraino eraman duela multimedia-prozesua enpresa arrasatearrak. Ondorioz, kazetariaren profila aldatzen hasi da. Metodologia aldetik, esan, bide kualitatiboa eta parte-hartzailea aukeratu dugula ikerketa-bide.

GAKO-HITZAK: Konbergentzia mediatikoa, kazetari multimedia, metodologia parte-hartzailea.

This article analyses the professional practice of the journalists working in the context of the convergence process set underway by the media group *Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Koop. E.*, which provides local news about the county where it is located. Our aim is to determine the multimedia profile of these journalists.

Our starting hypothesis leads to the consideration that the *Goiena* media group has reached a high degree of media integration, which, while not complete, is orientating its efforts towards the coordination of news amongst the four media – press, television, radio and Internet - in a unitary and shared form. In the short term, this will result in the physical unification of a single multimedia, or convergent, editorial committee and the newsroom. To carry out our work we have employed the qualitative-participatory method.

KEY WORDS: Media convergence, Multimedia journalist, *Goiena*, Participatory methodology.

Sarrera¹

Kazetaria aldaketa handien artean bizi da teknologia berriak direla eta. Komunikazio-enpresak digitalizatzen ari dira eta, gaur egun, multimediaren aukerak gero eta gertuagoak dituzte eta erabiltzen hasiak dira. Hedabide baterako kazetariak egiten duen informazioa beste hedabide baterako ere aprobeitza daiteke. Kazetariaren lanari etekin handiagoa ataratzeko bideak darabiltzate enpresek. Multimedia konzeptuak formatuari dagokio eta kazetariari ere badagokio. Web gunean ere hainbat medio-tako espresabideak erabiltzeagatik hartzen du “multimedia” izena.

Konbergentzia mediatikoak ildo berriak eskatzen ditu akademikoki eta oraindik hainbat esparrutan ez dago bateratasunik ikertzaileen artean. Estatu Batuetan eta Britainia Handian egindako ikerketak ditugu lehendabizikoak eta gure inguruan ere egon dira konbergentzia mediatikoa aztertu dutenak, besteak beste Javier Diaz Noci-k, Koldo Meso-k, Ainara Larrondok eta ni neuk parte hartu dugun ikerketetan adibide².

Metodologia kualitatiboa eta parte-hartzailea

Konbergentziaren azterketak, prozesu berria izanik, hainbat bide urratu ditu metodologiaren zein pauso erabili erabakitzerakoan. Ikusi besterik ez dago azken sei urteotan ikertzaileek proposatu dituzten analisi-erramintak. Oinarrizkotzat jo ditugu horiek eta halaxe erabili ere geure ikerketari argia emateko asmoz. Horra hor Fisher (2005), Singer (2005), Salaverría (2003), García Avilés (2006), Masip (2003), Quinn (2002) eta Ursell (2001).

Alde kuantitatiboan jartzen zen hasieran azterketaren pisua, Internet sartu berrian lehendabiziko ikerketek hala diote. Gero, berriz, eta konbergentziaren bideak ikusten hasi ondoren, kualitatiboari heldu zaio gehiago. Begirada hurbilagoak eta interpretatiboak hartu du indarra eta bigarren bide honetatik abiatu gara geu ere *Goienako* konbergentzia eta kazetarien lana aztertzeko.

Azkenengoetako eredu teoriko bat aipatzearen, Flecha, Vargas eta Dávila autoreengana joko dugu. Hiruok diote (2004: 21-33) badela garaia ikertzaileak berezko duen orojakilearen distantzia “objektiboa” alde batera utzi eta ikertuak parte-hartzaile gisa onartzeko. «La distancia metodológica (es decir, la distancia del investigador respecto a la realidad investigada) no es requisito imprescindible para la rigurosidad de investigación social» (2004: 21-33).

Gure ikerketari dagokionez, aztertuko dugu norainokoa den *Goiena* taldeko irriaren, telebistaren, telematikaren eta prentsaren arteko konbergentzia eta prozesu horren muinean kazetariak dira ikertuak, delako konbergentziak zer aldaketa eragiten dien argitzeko.

1. Zientzia eta Hezkuntza Ministerioak diruz lagundutako Ikerketa Proiektu barnean (“El periodista digital y la convergencia multimedia” – SEJ2006-14828- C06-02-) kokatzen da artikulua.

2. UPV-EHUK lagundutako ikerketa (2004) Interneten presentzia aztertzeko euskal prentsan. Aurten argita-ratutako liburua, bestetik, euskal prentsaren erredakzio digitalen inguruan eginiko ikerketaren emaitza da, UPV-EHUK lagunduta (2004-06).

Gauzak horrela, metodologia kualitatiboaren harira, honako tresnak erabili ditugu:

1. Kazetari guztientzako GALDEKETA. Oinarrizko datuok eskatzen dira besteak beste, galdeketan:
 - Kazetaritza lizentziaturaren balorazioa.
 - Enpresatik jasotako formakuntza.
 - Lan-baldintzen inguruko iritzia.
 - Lanaren espezializazioa gai aldetik.
 - Parte-hartzea kooperatiban.

2. LAU KAZETARIAREKIN EGINIKO ELKARRIZKETA-EZTABAIDA

Bigarrenez, elkarrizketak egin nahi izan ditugu kazetariokin, GALDEKETAn jasotako erantzunak aberasteko eta zehaztasunak argitzeko. Lau kazetari aukeratu ditugu, medio bakoitzetik bana eta batera egin dugu, mahai-ingurua balitz bezala, balorazioak elkarri entzuteak ikerketaren emaitzak indartuko dituelakoan. Zer gai ikutu diren? Ba galdeketan aipatutakoez gain:

- Kazetari multimedia edo multitarea?
 - Formakuntza-beharrak noraino betetzen diren.
 - Konbergentziaren bidean diren barne-aldaketak kazetariaren funtzio “tradizionalak” apurtuz.
 - Prentsa eta Telebistako erredaktoreen artean lan egiteko kultura-ezberdintasunak, elkarren arerio.
 - Konbergentzia eta lan-baldintzen aldaketak.
3. Hirugarrenez, kazetarien gainetik dauden arduradunengana jo eta elkarrizketak egin dizkiegu banan-banan. Bata *Goiena* taldeko zuzendari orokorrari egindakoa, bigarrena Ikus-entzunezkoen Saileko buruari eta, azkenik, perspektiba historikoa hartu nahi izan dugu *Arrasate Presse*ko zuzendariari egindakoarekin, gaurko *Goiena* ezin baitaiteke ulertu astekariaren sorrera (1988koa) eta ondorengoak arakatu gabe.

Konbergentzia mediatikoa, errentagarritasunaren eta informazioaren arteko lehian

Digitalizazioaren eraginagatik gaude gaur multimediaren eta konbergentziaren fenomenoez hitz egiten. Virginia Luzón-en (2001), Pere Masip-en (2003) eta Jose Alberto García Avilés-en (2002) lanek erakusten dute zer-nolako aldaketak jasan behar izan dituzten kazetariak lanean, Internet erabiliz erredakzioan. Gero etorriko zen konbergentzia-prozesua horren ondorena dela ohartzeko.

Holly Fisher-ek (2005) kudeaketaren arlotik aztertzen du konbergentzia. Auto-rearentzat multimedia-unea konbergentzia aurrekoa da eta, gutxienez, hiru medioren elkartzea suposatzen du.

Stephen Quinn-ek (2005), beste alde batetik, eusten dio fenomenoari: dikotomia hitza aipatzen du bi indarren arteko lehia dela argudiatuz. Konbergentzia-

prozesuaren hasieran azaltzen dira bi aurpegi. Enpresari negozioa axola zaio alde batetik (errentagarritasuna bilatzen du zuzendaritzak digitalizazioak eskaintzen dizkion aukera erraz eta azkarrengatik) eta, bestetik, informazioaren kalitatea zaintzeko indarra dago kazetarien aldetik (errentagarritasunaren printzipioari lehentasuna eman gabe).

Hau ez da ulertu behar zuria eta beltza balitz modura. Konplexuagoa da gaia baina autorearen dikotomia konzeptuak badu azterketa egokia egiteko proposamen teoriko aberatsa.

Quinn-en arabera, “kazetari multitarea”ren figura sustraitu da konbergentzian errentagarritasunaren printzipioa nagusitu den enpresetan. *Goienako* kazetariak badute “multitarea” direlako sentipena, lan egiteko erak aldatzen ari zaizkiela ohartzen diren heinean. Zuzendaritzaren aldetik “kazetari multimedia”rantz joan behar dela azpimarratzen dute, “multitarea” alboratuz.

Aldaketak aldaketa, konbergentziak agerian jartzen ditu prentsarako kazetarien eta telebistan dihardutenen arteko lehia. Jane Singer-ekin (2005) bat gatoz “kazetaritza-kulturen arteko talka” aipatzen duenean. Gure inguruan dauden talde mediatikoak adibide ezin hobeak dira, *Vocento* eta *Eitb* taldeak esaterako, medio bateko zein besteko kazetarien arteko “liskarrak” eta hasierako ezintasunak eta ahuldadeak digitalizazio- eta konbergentzia-prozesuetan sortzen direla ohartzeko (bateratze- edo elkartzeko-prozesuak berarekin daramana, noski). *Goienako* kasuan badira zailtasunak eta oztopoak kazetarien artean, ez dute ezkututzen, baina *Vocento* eta *Eitb* taldeetan baino arazo arinagoak dira, enpresa gazteagoa eta txikiagoa delako batik bat Arrasateko kooperatiba mediatikoa. Idea hau azpimarratuz, haxe esan, lau kazetariekin egindako elkarrizketa-erabakidaren haria Jane Singer-ek azaldutako arrastoetatik joan zen.

Goiena taldearen hedabide-bateraketa

Zazpi urte dira *Goiena* talde mediatikoa sortu zela (2000). 46 langile inguru ari dira euskarazko lau medioetan lanean, gestio- eta administrazio-arlokoak barne.

Bi lerrotan esateko, honakoak dira konbergentzian sartuta dabiltzanak:

- *Goienkaria* (2000). Astekaria da, asteleheneko eta ostiraleko edizioak kale-ratzen ditu. Bere iturburua 1988an jarriko dugu, eskualdeko lehendabiziko paperezko astekaria sortu baitzen (*Arrasate Press*), Arrasaten, euskarazko prentsa lokalaren aitzindaria izan zena. Hamabi erredaktorek eta teknikari batek osaten dute lan-taldea. Bergaran dute egoitza. Eskualdeko zortzi herrietan banatzen dira edizio biak.
- *Goitb* (1990). Lau erredaktore eta zazpi teknikari. Arrasaten du egoitza. Eskualde osoan ikusten da telebista. TOKIKO izeneko elkarte osatu du *Goienak* beste telebista lokalekin elkarlanak produzitzeko eta trukatzeko. Gaur egun, uztailean Eusko Jaurlaritzak onartu ondoren, *Goienak*, eskualdeko telebista digitalaren emisio-baimena lortu du. *Vocento* eta *Prisa* taldeei beste telebista bana eman die Goiena eskualdean emititzeko. *Hamaika* taldearekin *Goienak* tratua egin zuen aurretik, eskualde horretan telebista

lokalaren proiekturik aurkeztu ez zedin eta era berean *Goienak* aurkezten duena onartzea eskatuz.

- *Arrasate Irratia* (1992) Bi erredaktore eta teknikaria. Udalarena izan arren, *Goiena* taldeak gestionatu izan du beti eta eskualde osora zabaltzen ditu uhinak. Oñatin ere bada udal-irratia, herriari begira.
- *Goiena.net* (2003). Bi erredaktore. *Code Syntax* enpresarekin batera sortutako produktua da mundura zabalduetako *Goiena* taldearen lehiotekoa³.

Albistegietako egituraren aldaketak

Hego Karolinako *Ira Newsplex*eko zuzendariaren (Ferry Northrup) aipamenak ditu gogoan Fisher-ek (2005) “erredakzio konbergenteak” deitzen dienean, besteak beste, profil berriak sortu izanagatik. Eta hara nola, *Goienako* informazio-egituraren aldaketak direla medio, berdintasuna nabari den bien artean, Karolinako eta Euskal Herrikoaren artean hain zuzen. Ondorengo bi grafikoetan frogatu daitezke dioguna.

Has gaitezen *Newsflow Editor* figura aztertzen, *Edukien Zuzendaria* litzateke. Informazioa hautatzerakoan, erredakzio bat dauka buruan nahiz eta albiste gisa formatu bat ala bestea aukeratu telebista, irrati, prentsa zein telematika. *Edukien Zuzendaria* da *Goienako* informatiboetako egiturak buruan duen figura.

2006ko azaroan ziharduen informatiboaren egitura otsailekoarekin jarri dugu parean. Lau hilabete horietan hartutako erabakiaren ondoren ezin adierazgarriagoa da bigarren koadroa. Konbergentziaren emaitzak maila guztietan nabarmentzen dira. *Goienako* astekariko zuzendariak hartu du egitura berriaren gidaritza. Telematikaren arduraduna Ikus-entzunezkoen Sailera pasatzen da. Funtzio berri horrek lan mardula hartzen du bere bizkarrean, telebista delako hadabiderik konplexuena teknikoki konbergentziarako bidean.

Otsaileko egituraren hirugarren aldaketa nabarmendu nahi dugu kazetari-erredaktoreen esparruan azaltzen delako. Telebistan bi arduradun daude parez pare, “albistegietako burua” eta “albistegietako editorea”⁴, bigarrenak kazetariaren lana (idaztea eta editatzea) teknikoarekin uztartzen du errealizazioaren alde grafikoa bere gain hartuz. Hori gutxi balitz, produkzio-arloa ere ukitzen du. Kazetariaren eta kameraren arteko esparruan kokatzen da editorea. Erredakziotik, produkziotik eta errealizaziotik (grabatutako irudien hautaketa egiten duen neurrian) hartzen ditu eskumenak. Ikusteko dago editore figura berri honek zer lan beteko duen eta

3. Kontuan izan, *Goiena* taldeak zortzi udalerritan bizi diren 66 mila lagunengana ailegatzen dela bere eskaintza informatiboan, atari digitalaz gain, paperaren bidez, ahotsaren bidez eta baita irudien bidez ere, integrazio-bidean jarrita dauden lau hedabideon eskaintza hain zuzen ere. Eusko Jaurlaritzaren agentzia estatistikoa *Eustaten* arabera, Deba ibaiaren goiko bailaran % 70 euskalduna da (2001eko datuak dira) eta eskualdeko bizi-maila altua da. Erkidegoko batez bestekoaren gainetik 15 puntu. Gainera, ezaguna bada ere, azpimarratzekoa da kooperatibismo industrialaren sorlekua dela Arrasate eta ingurua. Datu hori kontuan hartzekoa da, besteak beste, aztertzen ari garen talde mediatikoa zergatik sortu den eskualde honetan oharrezko.


4. Terminoari gagozkio larrik eta izenari erreparatuta, “arduradunak” eta “editoreak” ez dute esanahi bera telebista guztietan.

norantz joango den. Baina ez da dudarik aldaketa kualitatiboa dela eta ez txikia, gainera, erredakzioan.

Eraketa berriaren mapan, 2. grafikoan, ikusten ez bada ere, *Edukien Zuzendariaren* izendapenak berarekin dakar astero biltzen den bilgune-organu berria. Zuzendariarekin eta ikus-entzunezko arduradunarekin batera, lau hedabideetako buruek bat eginik osatzen dute Ostiraleko Batzarra⁵.

Honezkero, irakurlea konturatuko zen 2006ko azaroko eta 2007ko otsaileko grafikoan artean nabarmentzen den aldeaz, hedabideen erredakzioen egoitzari dago-kion aldetik dagoenaz, hain zuzen ere. Lehengoan Bergaran bi hedabide kokatzen ziren (beste bi Arrasaten) eta otsailean bakarra gelditzen da soilik Bergaran eta beste hirurak Arrasaten biltzen dira. Denbora asko itxaron gabe, Arrasatek jasoko ditu lauak, "converged newsroom" deituriko erredakzio multimedia bateraturako helburua jarrita dauka *Goiena* taldeak. Litekeena da 2008an lortzea erredakzio bakarra.


5. Ostiraletako organu berriak hildo nagusiak finkatzen ditu, hedabide guztietan eragin zuzena izango dutenak.



Iturria: norberak egina.

(*) *Goiena Komunikazio Zerbitzuak Koop. E.*-ko administrazioko langileen egoitza Arrasaten dago, telebistako eta irratiko egoitzatik aparte. Hiru etxetan sakabanatuta daude beraz, *Goienaren* egoitzak, bi Arrasaten eta Bergaran hirugarrena.

1. grafikoa. *Goiena Komunikazio Zerbitzuak Koop. E.*-ko albistegietako egitura (2006ko azaroa).



Iturria: norberak egina.

2. grafikoa. **Goiena Komunikazio Zerbitzuak Koop. E.-ko albistegietako egitura berria (2007ko otsaila).**

Behaketa aldia. Bileren eta gaien jarraipena

Elkarrizketetan eta galdeketan jasotako informazioa sinesgarria izan zedin, kazetarien lana jarraitu da eta bere gainean egon gara. Horretarako hainbat aukeratu dira eta ondoko lerroetan pare bat besterik ez dugu azalduko. Aurreko fasean multimedia-kazetariaren profila aztertu eta eztabaidatu dugun bezala, orain ikusiko dugu ea esandakoak eta entzundakoak zenbaterainoko indarra duten eta benetakoak diren: hitz batean esateko, BEHAKETA egin dugu. Hasieran esan dugun bezala, metodologiaren zati garrantzitsuenetakotzat hartu dugu sistema hau eta baieztatu ere horrelaxe egin dezakegu.

2007ko otsailaren 2tik 9ra bitartean jarraitu dugu *Goienako* kazetarien lana. Horrekin batera bileren behaketa egin dugu, aukera izan baitugu albisteak eta informazioa aukeratu eta antolatzen diren bileretan parte hartzeko. Horrela, ostiral goizean hasi dugu, otsailaren 2an, goizeko zortzietan lau hedabideetako buruen arteko batzarrean, "entzule" (eta ikusle) modura parte hartuz. Bilera horretan erabakitzen da *Goiena* taldeak eramango duen informazio-politikaren ildo nagusia, gero lau hedabideetan zehar banatuko dena. Esan daiteke organo berri hau informazioaren arloan gertatzen ari diren aldaketen isla garbiena eta indartsuena dela, Edukien Zuzendaritzako Bilera.

Beste bilera bat hartu dugu eredu gisa, aurreko bileraren ondoren, *Goienkaria* ostiralero kaleratzen den astekariaren zuzendariak erredaktoreekin egiten duena (aurretik bileran parte hartu du zuzendariak beste buruekin batera eta han erabakitakoaren berri ematera eta lana banatzera dator oraingoan, bere hedabideko erredaktoreekin biltzera). Lehendabiziko bilera Arrasaten egiten dute buruek eta prentsako zuzendaria Bergarara joaten da ondoren, han baitago oraindik prentsaren egoitza, dagoeneko esan dugun moduan.

Beraz, BILEREN BEHAKETA egin da lehendabizi. Edukien Zuzendaritzako Bileraren eta hedabide bateko bileraren ondoren. Lehenengoan aukeraketa egiten da, epe motzera eta luzera begira. Hedabide bakoitzaren balioa eta errekurtsioak aipatzen dira, albisteak zein prozesu eramango duen gero erabakitzeko. Zein hedabidetako kazetariekin hasi eta nola banandu gero beste hedabideetara.

Bigarren bilerako partaideak, hedabide bakoitzeko erredaktoreak, zehaztapenetan sartuko dira eta elkarlanaren fasea hasiko da ondoren. Hedabide bakoitzeko zuzendariak gidatu eta lagundu egingo dio kazetariari koordinazio-lana ahalik eta ondoen egin dadin.

Behin bileren berri izanda, eta honelako eta halako gaiak aukeratzen direla ikusi eta gero, kazetarien lanaren jarraipena egingo da. Horretarako gai batzuk aukeratu dira, lerro hauetan bi besterik ez dugu aipatuko.

- Mesedetako Eskolako gurasoen protesta. Otsailak 5, astelehena. 17:00.
- Bergarako alkateari eginiko elkarrizketa. *Goitb* telebistaren "Debarri" programa. Otsailak 7, asteazkena. 21:15.

Lehendabiziko kasuan, telebistako kazetaria hasi zen albistearekin.

- Kamera-lanetarako lagun bat zuen alboan. Irudiak grabatuko ditu horrek.
- Mikroa dauka, koaderno eta boligrafoa eskuan ditu. Hori telebistako bideoan gaueko informatiboan azal dadin.
- Horrekin batera, kazetariak kamera digitala darama eskolako gurasoen protesta-lekura (*Goienkariak* hurrengo ostiralean argazkiren bat argitara dezan, baita *Goiena.net* atarian, albistea gertatu ondoren berehala azaltzeko ere).

Informazioaren banaketa:

- Goiena.net*eko kazetariak testua jasotzen du eta 18:57an atarian ikusi eta irakur daiteke protestaren lehendabiziko informazioa. Testua eta argazkia, eskola aurrean egon den kazetariak bidalitakoak.
- Goitb* telebista-katearen *Berriak* izeneko gaueko albistegian, egun horretako lehendabiziko albistea dugu Mesedetako Eskolako gurasoen protesta. Testua kazetariak berak egin du eta gurasoen iritzia aukeratu. Editatzea, bideoa osatzea, beste kazetari batek egin du, *Editorea* deitzen denak.
- Arrasate Irratian* hurrengo eguneko goizeko saioan entzungo dira gurasoen iritzia, aurreko egunean grabatutakoak.
- Goienkaria* astekarian, ostiraleko edizioak jasoko du albistea eta informazioa erabiltzeaz gain, astelehenean ataratako argazkiak sartuko ditu orrialdean.

Bigarren kasuan, honako hau gertatzen da:

- *Goienkariako* kazetaria joaten da “Debarri” programa entzutera (goizean grabatzen da eta gauean emititu, albistegiaren ondoren, 21:15ean) Arrasateko telebistako estudioetara. Kazetari horrek Bergarako berriak idazten ditu eta jarraipena egiten dio alkatearen ekintzari, besteak beste.
- Argazkiak ataritzen ditu, astekariarekin pentsatzen, handik bi egunera argitaratuko diren orrialdeetan sartzeko.
- *Goitb* telebistako albistegietako arduradun eta aurkezle denak elkarrizketa laburra egiten dio Bergarako alkateari, albistegietan sar dadin (elkarrizketa bera ondoren emitituko da osoa, lehen esan bezala). Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren Planaren parte-hartzaileetako bat da propio sortu diren foro municipal eta eskualdekoetan Bergarako alkatea eta albistea dela kontuan hartuta egiten dio elkarrizketa laburra.

Informazioaren banaketa:

- Goiena.net* atariak 12:12an zabaltzen du albistea (aurrekoan bezala, lehendabiziko hedabidea da informazioa zabaltzen). Alkatearen argazkia dakar, *Goienkariako* kazetariak ataratakoa goizean estudioan. *Debarri* programaren aurrerapena egiten dio bitartean internautari.
- Hurrengo egunean, irratia, *Arrasate Irratiak* zabaltzen ditu Bergarako alkatearen berbak.
- Goienkariak* ostiralean jasotzen du alkateak esandakoarekin erreportajea, astero egiten duen Bergara herriko orrialdeetan.

d. *Goitbk* gaueko albistegian eta ondoren *Debarri* saioan emango du elkarrizketa.

Konklusioak

1. Multimedia-profila, emakumea eta gaztea

Goienako kazetaria polibalentea da gaur egun, multitarearen eta multimediaren arteko bidean dago. 30 urtez azpikoa batez beste eta emakumea. Beraz, ez du denbora luzeko eskarmentu profesionalik eta lizentziatura-ikasketak amaitu berriak ditu, kasu askotan. Era tradizionalan apenas lanik egin duen *Goienako* kazetariak digitalizazioaren aurreko esperientzia txikia izan du, izatekotan.

2. Multimediara moldaerazak, kazetariak

Aurreko puntuan esandakoaren ondotik dator bigarren konklusioa. Hedabideetako kazetari-taldeen artean lan egiteko ohiturak batzen joateko ez dute kazetariak gaindiezineko zailtasun gogorrik. Zuzendaritzatik hartzen dituzten erabakiek integrazio-prozesuan ondorenak dituzte zuzenean erredaktoreen lanean. Normala denez, goitik erritmo biziagoa jartzen dute eta tirabirak sortzen dira adaptazio-bidean.

3. Edukien Zuzendaritza, zentralizazioa

Albistegietako arduradun nagusia *Goienako* egitura edo organigrama berrian Edukien Zuzendaria da. Pauso ezinbestekoa da lau hedabideen arteko bateraketan. Orain arte hedabide bakoitzak autonomia handiagoa zuen hasieratik eta orain elkarren berri izan behar dute, elkarrekin hartu behar dituzte erabaki informatiboak. Bidegurutze horretan aurkitzen da gaur *Goienako* arduradunen egina. Estrategikoa da berak markatuko duen bidea. Asteroko edukien bileran zentralizatzen da orain lau hedabideontzat izango den albistegi-agenda komuna, ondoren, bakoitzak bere estiloan argitara eta plazara dezan.

4. Dikotomiaren gurpilean

Integrazio mediatikoak dakarren dikotomia azaleratzen da epe laburrean *Goienan*. Stephen Quinn-en galdera egiten dugu geuk ere: zein irizpidek hartzen du indar gehien oraingo erabakietan: gastuak murrizteari begiratzen dion filosofia enpresarialak, ala informazioaren eta langileen lan-baldintza egokien alde jokatu duenak? Bietatik hartzen bada ere, balantzak alde batera gehiago egingo du, nahiz eta orekaren erronka nagusitu *Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartean*.

Erreferentziak

- Alvarez de Armas, O. (2003): "Periodismo digital, periodistas digitales y empresas multimedia", *Hipertext.net* [Aldizkari elektronikoa], 2, <<http://www.hipertext.net>>
- Armañanzas, E.; Diaz Noci, J. eta Meso K. (1996): *El periodismo electrónico*, Zerbitzu editoriala UPV-EHU, Bilbo.
- Armentia, J.I.; Elexgaray, J. eta Perez Fuentes, J.C. (1999): *Diseño y periodismo electrónico*, Zerbitzu editoriala, UPV-EHU, Bilbo.

- Armentia, J.I.; Caminos, J.M.; Elexgaray, J. *et. al* (2000): *El diario digital*, Bosch, Bartzelona.
- Barreda, R. (1996): "Perfiles profesionales en la sociedad del conocimiento", *Fundesco*, **181**, Madril.
- Batlé, A. (1999): "Reinventar els infomatius a l'era digital", *News, News*, **114**, Corporació catalana de Ràdio i Televisió, Bartzelona.
- Canga, J.; Coca, C. eta Martínez, E. (1999): *Diarios digitales. Apuntes sobre un nuevo medio*, Zerbitzu editoriala UPV-EHU, Bilbo.
- Cebrián Herreros, M. (1994): *Información radiofónica. Mediación técnica, tratamiento y programación*, Editorial Síntesis, Madril.
- Díaz Noci, J.; Meso, K. (1999): *Periodismo en internet: modelos de prensa digital*, Zerbitzu editoriala UPV-EHU, Bilbo.
- Díaz Noci, J. (2001): *La escritura digital. Hipertexto y construcción del discurso informativo en el periodismo electrónico*, Zerbitzu editoriala UPV-EHU, Bilbo.
- Edo, C. (2003): *Periodismo informativo e interpretativo. El impacto de Internet en la noticia, las fuentes y los géneros*, Comunicación social, Sevilla.
- Erausquin, M. (1991): "Renovación técnica y profesionales de la radio", *Telos, Cuaderno Central*, **26**, Madril.
- Fisher, H. (2005): "Developing media managers for convergence: A study of management theory and practice for managers of converged newsrooms", *The Convergence Newsletter*, II. lib. , **7** (ots. 2).
- Flecha, R.; Vargas, J. eta Dávila, A. (2004): "Metodología comunicativa crítica en la investigación en Ciencias Sociales: la investigación", *Workaló, Lan Harremanak*, **11**, UPV-EHU, Bilbo, 21-33.
- Franquet, R. (1999a): "Radio y televisión en la red: primer asalto", in R. Franquet eta G. Larrégola (ed.): *Comunicar en la era digital*, Societat Catalana de Comunicació, Bartzelona.
- Gamella, M. (1993): "Los procesos de innovación en tecnologías de la información: muchas preguntas y algunas respuestas", *Fundesco*, Boletín de la fundación para el desarrollo de la función social de las comunicaciones, **145**, Madril.
- García Avilés, J. A. (2002): "Periodismo polivalente y convergente. Riesgos y oportunidades para el periodismo audiovisual", *Chasqui. Revista Latinoamericana de Comunicación*, **79**, Quito.
- , (2006): "Convergencia y polivalencia periodística en televisiones europeas y norteamericanas", *Global Media Journal*, 3. lib., **6**, Tecnológico de Monterrey, México.
- Killebrew, K. (2002): Culture Creativity and Convergence: Managing Journalists in a Changing Information Workplace. *The Management*, 5. lib., **I**, 39-46.
- Larrañaga, J. (2006): Perfil profesional y laboral del periodista digital en el País Vasco. Díaz Noci, J. et al. Impacto de internet en los medios de comunicación vascos, Zerbitzu editoriala UPV-EHU, Bilbo.
- , (2005): Información local en el mundo global: el catalán, el gallego y el euskara en los portales de *Vilaweb*, *Vieiros* y *Goiena.net*. V Bienal Iberoamericana de Comunicación-era aurkeztutako txostena, Tecnológico de Monterrey, México, 20-22.
- Luzón, V. (2001): *La irrupción de Internet en las rutinas productivas de los informativos diarios televisivos. El caso de TV3, Televisió de Catalunya*, Tesi Doctorala, Departament de Comunicació Audiovisual y Publicitat. Facultat de Ciències de la Comunicació, Bellaterra, Bartzelona.
- Martín Muñoz, J. eta López Pavillar, S. (1997-98): RTVE: Reorganización de la Documentación en un entorno multimedia. Cuadernos de Documentación Multimedia, **6-7**.

- Martín Sabarís, R. (1996): *La organización informativa y los procesos de producción de la noticia. La información diaria en Euskal Telebista*, doktore-tesia, Ikus-entzunezko eta Publizitate Saila. UPV-EHU.
- Masip, P. (2003): "Presencia y uso de internet en las redacciones catalanas", *Zer*, **14**, UPV-EHU, Bilbo.
- Micó, J. L. (2006): *Periodisme a la xarxa. Llenguatge nou d'un ofici vell*, Eumo, Vic.
- Millar, N. eta Allen, R. (eds): (1995): *The post-broadcasting age: new technologies, new communities*, University of Luton Press, Luton.
- Murcia Jaen, A. (1994): "Tecnologías de la información: perfiles profesionales para fin de siglo", *Fundesco*, **152**, Madril.
- Olliva, LL. (1990): Deu anys d'informació a TV: Entre la revolució tecnològica i la intervenció política. *Annals del Periodismo Catalá*, **17**, Bartzelona.
- Ortega, F. eta Humanes, M^a L. (2000): *Algo más que periodistas. Sociología de una profesión*, Ariel, Bartzelona.
- Peiró, C. (1999^a): Les ràdios s'acosten a poc a poc a Internet. Capçalera. 97 zk. Azaroa. Col.legi de Periodistes de Catalunya, Bartzelona.
- , (2000): Producció integrada de continguts audiovisuals. En *News, News*. **129**, Corporació Catalana de Ràdio i Televisió, Bartzelona.
- Quinn, S. (2002): *Knowledge Management in the Digital Newsroom*, Local Press, Oxford.
- , (2005): "Convergence's Fundamental Question", *Journalism Studies*, 6. lib., **1**, 29-38.
- Rodríguez Jiménez, M. (1990): "La formación tecnológica de los periodistas", *Fundesco*, **106**, Madril.
- Sainz, M. (1994): *Manual básico de producción en televisión*, Instituto Oficial de Radiotelevisión Española, Madril.
- Sainz Olmo, J. (1992): *La redacción informatizada en radiodifusión sonora. Su incidencia en el proceso de producción de la noticia: el caso de Valencia*, doktore-tesia, Facultat de Ciències de la Comunicació. Universitat Autònoma de Bartzelona, Bellaterra.
- Salaverría, R. (2003): "Convergencia de medios", *Chasqui*, **81**, (aldizkari elektronikoa) <<http://chasqui.comunica.org/81/salaverria81/.htm>>
- (2005) *Redacción periodística en internet*, EUNSA, Iruñea.
- Schlesinger, P. (1978): *Putting reality together. BBC news*, Ed Constable, Londres.
- Singer, J.B. (2005): "The Sociology of Convergence", Broadcast Education Association. April. Las Vegas. <<http://myweb.uiowa.edu/jsinger/bea2005/sociology.html>>
- Tunstall, J. (1974): *Journalist at Work*, Sage Publications, California.
- Ursell, G. (2001): "Dumbing down or shaping up? News technologies, new media, new journalism", *Journalism: Theory, Practice & Criticism*, **2** (2), 175-196.
- Varela Rodríguez, M.C. (1998): *La infraestructura tecnológica en los informativos de televisión de Galicia: usos y aplicaciones en la realización de informativos diarios*, doktore-tesia, Compostelako Unibertsitateko Komunikazio Zientzien Fakultatea.
- Velázquez, R. (1994): "Flexibilidad y polivalencia, valores clave de los nuevos profesionales", *Fundesco*. Boletín de la Fundación para el desarrollo de la función social de las comunicaciones, **152**, Madril.
- VVAA (1990): *El periodismo audiovisual ante el año 2000*, Zerbitzu editoriala, UPV-EHU. Bilbo.
- Wolton, D. (2000): *Internet ¿y después?*, Gedisa, Bartzelona.
- Yorke, I. (1987): *The technique of television news*, Focal Press, Londres.

